Bestelako Xedapenak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

2155

AGINDUA, 2010eko martxoaren 5ekoa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Mario Onaindia Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan «Mario Onaindia Fundazioa» (Zarautz, Gipuzkoa) inskribatzeko eskabideak eragin duen espedientea ikusi da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– 2009ko urriaren 26an María Esozia Leturiondo Aranzamendik izenpetutako eskabideari sarrera egin zitzaion Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan. «Mario Onaindia Fundazioa» izenez eratutako Fundazioa inskribatzeko egin zen eskabidea.

Eskabideari Fundazioa eratzeko Eskritura Publikoaren kopia baimenduna atxikitzen zaio, zein 2009ko ekainaren 20an eman baitzen EAEko Notarioen Elkargoko (Azpeitiko barrutia) notario Ángel María Moreno Gallegoaren aurrean, 507 zenbakiko protokolo zenbakiaz.

Kopia emate horretan parte hartzen dute, fundatzaile modura, honako hauek: María Esozia Leturiondo Aranzamendi, Jesús María Eguiguren Imaz, Alberto Aguirrezabal Echave, Eduardo García Elosua, Miguel Ángel Unzalu Hermosa, Gaizka Fernández Soldevilla, Oscar Rodríguez Vaz, Ivan Igartua Ugarte, Felipe Juaristi Galdós, François Marie Maitia, Ibon Sarasola Errazkin, Eduardo Uriarte Romero, María Ángeles Onaindia Nachiondo, María Esther Onaindia Nachiondo, Arantza Leturiondo Aranzamendi, Emilio Guevara Saleta, Luis Haranburu Altuna, José Luis de la Granja Sainz, Ander Landaburu Illarramendi, Roberto Lertxundi Barañano, José María Salbidegoitia Arana, Patxi Elola Azpeitia, Luis Castells Arteche, Juan Carlos Prieto San Vicente, Nerea Hernández Llona eta Arantza Mendizabal Gorostiaga.

Eskriturak, besteak beste, eratutako fundazioaren estatutuak eta sarrera/gastuen aurrekontua jaso zituen.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordea bildu zen

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

2155

ORDEN de 5 de marzo de 2010, de la Consejera de Justicia y Administración Pública, por la que se inscribe en el Registro de Fundaciones del País Vasco la denominada «Mario Onaindia Fundazioa».

Visto el expediente al que ha dado lugar la solicitud de inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco de la Fundación denominada «Mario Onaindia Fundazioa», de Zarautz (Gipuzkoa), atendiendo a los siguientes:

ANTECEDENTES DE HECHO

Primero.– Con fecha 26 de octubre de 2009, tiene entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública solicitud suscrita por D.ª María Esozia Leturiondo Aranzamendi, de inscripción de la Fundación constituida bajo el nombre «Mario Onaindia Fundazioa».

A la solicitud se adjunta copia autorizada de la Escritura Pública de constitución de la Fundación, otorgada el 20 de junio de 2009, ante el Notario del Ilustre Colegio Notarial del País Vasco, distrito de Azpeitia, D. Ángel María Moreno Gallego, número 507 de su protocolo.

Al acto de otorgamiento asisten como Fundadores las siguientes personas: D.ª María Esozia Leturiondo Aranzamendi, D. Jesús María Eguiguren Imaz, D. Alberto Aguirrezabal Echave, D. Eduardo García Elosua, D. Miguel Ángel Unzalu Hermosa, D. Gaizka Fernández Soldevilla, D. Oscar Rodríguez Vaz, D. Ivan Igartua Ugarte, D. Felipe Juaristi Galdós, D. François Marie Maitia, D. Ibon Sarasola Errazkin, D. Eduardo Uriarte Romero, D.ª María Ángeles Onaindia Nachiondo, D.ª María Esther Onaindia Nachiondo, D.ª Arantza Leturiondo Aranzamendi, D. Emilio Guevara Saleta, D. Luis Haranburu Altuna, D. José Luis de la Granja Sainz, D. Ander Landaburu Illarramendi, D. Roberto Lertxundi Barañano, D. José María Salbidegoitia Arana, D. Patxi Elola Azpeitia, D. Luis Castells Arteche, D. Juan Carlos Prieto San Vicente, D.ª Nerea Hernández Llona y D.ª. Arantza Mendizabal Gorostiaga.

La Escritura incorpora, entre otros extremos, los Estatutos de la Fundación constituida así como el presupuesto de ingresos y gastos.

Segundo.– Con fecha 16 de noviembre de 2009, se reúne la Comisión Técnica de la Comisión Asesora

fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko. Batzorde horrek fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman zuen 2009ko azaroaren 16an.

Hirugarrena.– 2010eko otsailaren 23an sarrera egin zitzaion Justizia eta Herri Administrazio Saileko Erregistroan eratze eskrituraren eskritura publiko osagarriari, zein 2010eko otsailaren 8an eman baitzen goian aipatutako notarioaren aurrean (126 protokolo zenbakia), Fundazioaren hasierako dotazioaren benetako ekarpen ekonomikoa egiaztatze aldera.

Laugarrena.– Aurkeztutako agirietatik honako datu hauek atera daitezke:

1.– «Mario Onaindia Fundazioa»ren helburua estatutuen 3.2 artikuluan dago jasota:

– Mario Onaindiaren ondare politikoa zaindu, aztertu eta hedatu.

– Liberalismoak, errepublikanismoak eta sozialismoak Euskadin eta Nafarroan izan duten historia ikertu eta hedatu.

– Izaera progresista, autonomista eta demokratikoa duen euskal kultura politikoa berreskuratu eta eguneratu.

– Euskal kulturaren aniztasuna sustatu, euskaraz egindako agerraldiei arreta berezia eskainiz.

Helburu horiei begira, Fundazioak beste zenbait jarduera garatuko ditu:

– Eztabaida-lekuak, ikastaroak, mahainguruak, mintegiak eta konferentziak antolatu.

– Erakusketak edo bestelako talde-agerraldiak prestatu.

– Liburuak, monografiak, agiri dossierrak, aldizkariak, buletinak eta gainerako argitalpenak editatu.

– Bekak eta sariak eman.

– Artxibategi-liburutegia osatzeko era guztietako materialak bildu.

– Fundazioaren helburuak ezagutarazi komunikabideen bidez.

– Fundazioaren helburuetan interesa duten euskal erakundeekin, beste erakunde batzuekin eta pertsona fisiko eta juridiko pribatuekin harremanak izan.

– Fundazioaren helburuak betetzen lagun dezaketen era guztietako erakundeekin itun eta hitzarmenak sinatu.

– Fundazioaren helburuak gauzatzeko lagungarri izan daitekeen beste edozein.

2.– Fundazioaren helbidea, fundazioaren estatutuetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako hau da: Nagusia kalea, 21, Zarautz (Gipuzkoa).

del Protectorado de Fundaciones del País Vasco con la finalidad de verificar la licitud e interés general de los fines fundacionales, emitiendo informe favorable a la inscripción registral.

Tercero.– Con fecha 23 de febrero de 2010, tiene entrada en el Registro del Departamento de Justicia y Administración Pública, Escritura Pública complementaria de la Escritura de constitución, otorgada el 8 de febrero de 2010, ante el mismo Notario arriba mencionado, número 126 de su protocolo, al objeto de acreditar la aportación económica efectiva de la dotación inicial de la Fundación.

Cuarto.– De la documentación presentada se desprenden los siguientes datos:

1.– El fin fundacional de «Mario Onaindia Fundazioa» viene establecido en el artículo 3.2 de su norma estatutaria, consistiendo en:

– Promover la conservación, el estudio y la difusión del legado político e intelectual de Mario Onaindia.

– Promocionar la investigación y la divulgación de la historia del liberalismo, el republicanismo y el socialismo en el País Vasco y Navarra.

– Favorecer la recuperación y la actualización de la cultura política vasca de carácter progresista, autonomista y democrático.

– Fomentar la pluralidad de la cultura vasca, prestando especial atención a sus manifestaciones en euskera.

Para llevar a efecto estas metas, la Fundación desarrollará diferentes actividades como:

– Organizar foros, cursos, mesas redondas, seminarios y conferencias.

– Preparar exposiciones o cualquier otra manifestación colectiva.

– Editar libros, monografías, dossiers documentales, revistas, boletines y todo tipo de publicaciones.

– Conceder becas y premios.

– Recopilar todo tipo de materiales para formar un archivo-biblioteca.

– Dar a conocer los fines de la Fundación a través de los medios de comunicación.

– Mantener contactos con las instituciones vascas y toda clase de organismos y personas físicas y jurídicas privadas interesadas en los fines de la Fundación.

– Establecer conciertos y convenios con todo tipo de entidades que puedan contribuir al logro de sus fines.

– Cualesquiera otros que puedan ser conducentes a la realización de sus finalidades propias.

2.– El domicilio fundacional, conforme dispone el artículo 5 de los Estatutos fundacionales, queda fijado en Nagusia Kalea, n.º 21, de Zarautz (Gipuzkoa).

3.– Hasierako dotazioa hogeita hamar mila eurokoa da (30.000), eta kopuru hori ordaindu dela jasota geratu da erregistro-inskripzioaren espedientean, hala agintzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 37.1.c artikuluak.

Ondarea egokitzat eta askitzat jotzen da fundazioaren helburuak betetzeko, fundazioei buruzko abenduaren 26ko 50/2002 Legearen 12.1 artikuluaren eta azken xedapenetatik lehenengoaren arabera.

4.– Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetako 9. eta 12. artikuluan jartzen duen moduan.

5.– Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

3.– La dotación inicial asciende a la cantidad de treinta mil (30.000) euros, cuyo desembolso es acreditado documentalmente en el expediente de inscripción registral, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 37.1.c), del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

La dotación patrimonial se considera adecuada y suficiente para cumplir los fines fundacionales, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 12.1 y la Disposición Final Primera de la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones.

4.– El gobierno, administración y representación de la Fundación se confía al Patronato, cuyos miembros desempeñarán sus cargos con carácter gratuito, de acuerdo con los artículos 9 y 12 de los Estatutos fundacionales.

5.– El Patronato inicial, tal y como establece la Escritura de constitución fundacional, estará integrado por los siguientes miembros:

- Lehendakaria / *Presidente:*	María Esozia Leturiondo Aranzamendi
- Lehendakariordea / *Vicepresidente:*	Jesús María Eguiguren Imaz
- Idazkaria / *Secretario:*	Alberto Aguirrezabal Echave
- Diruzaina / *Tesorero:*	Eduardo García Elosua
- Batzordekideak / *Vocales:*	Miguel Ángel Unzalu Hermosa
	Gaizka Fernández Soldevilla
	Oscar Rodríguez Vaz
	Ivan Igartua Ugarte
	Felipe Juaristi Galdós
	François Marie Maitia
	Ibon Sarasola Errazkin
	Eduardo Uriarte Romero
	María Ángeles Onaindia Nachiondo
	María Esther Onaindia Nachiondo
	Arantza Leturiondo Aranzamendi
	Emilio Guevara Saleta
	Luis Haranburu Altuna
	José Luis de la Granja Sainz
	Ander Landaburu Illarramendi
	Roberto Lertxundi Barañano
	José María Salbidegoitia Arana
	Patxi Elola Azpeitia
	Luis Castells Arteche
	Juan Carlos Prieto San Vicente
	Nerea Hernández Llona
	Arantza Mendizabal Gorostiaga

Guztiek onartu dituzte dagozkien karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Patroi karguak 5 urterako aukeratzen dira eta iraupen bereko beste aldi batzuetarako aukeratu ahalko dira, inolako mugarik gabe.

Patroi izendatu direnei dagokienez, zeinen izenean eta ordez parte hartzen duela adierazten baitu M.ª Esozia Leturiondo Aranzamendik, eta eraketa eskrituran beren beregi jaso den arren ordezkaritzan hitzartutakoaren eragingarritasuna alegatutako agiri-frogari atxikita gelditzen dela, izapidetutako espedientean ez da ageri ordezkaritza hori egiaztatzen duen aztarnarik, ez eta horren ondoren izendapenak onartu direnik ere.

Bosgarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta ondoren, erabaki-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 40. artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3. artikuluan eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4. artikuluan.

Bigarrena.– Horretarako legitimazioa daukan pertsona batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki bete egin dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako eskakizunak.

Patroi izendatu direnei dagokienez, zeinen izenean eta ordez parte hartzen baitu M.ª Esozia Leturiondo Aranzamendik, honek haiengandik egintza honetarako jaso duen hitzezko ahalordea ez da nahikoa eta, ondorioz, ez da bidezkoa izendapen horiek inskribatzea.

Aipatu arauak eta oro har aplika daitezkeen gainerako arauak ikusi dira.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak

Todos los aquí referidos han aceptado sus respectivos cargos según las formas previstas en el artículo 12.1 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco.

El cargo de Patrono tendrá una duración de 5 años, renovables por períodos iguales sin limitación alguna.

Por lo que respecta a los designados Patronos en cuyo nombre y representación manifiesta intervenir D.ª M.ª Esozia Leturiondo Aranzamendi, a pesar de la advertencia notarial recogida expresamente en la Escritura de constitución de quedar supeditada la eficacia de lo pactado por representación a la correspondiente prueba documental alegada, no resulta del expediente tramitado acreditación alguna de dicha representación, ni aceptación posterior expresa de sus nombramientos.

Quinto.– El expediente ha sido examinado por los Servicios Técnicos del Registro de Fundaciones del País Vasco, que a su vista han elevado propuesta de resolución, atendiendo a los siguientes:

FUNDAMENTOS JURÍDICOS

Primero.– Corresponde a la Consejera de Justicia y Administración Pública dictar, mediante Orden, la Resolución del expediente de inscripción de constitución de la Fundación, en virtud del artículo 40 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco; el artículo 3 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco y el artículo 4 del Decreto 472/2009, de 28 de agosto, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia y Administración Pública.

Segundo.– El presente expediente ha sido promovido por persona legitimada para ello, y al mismo se han aportado cuantos datos y documentos se consideran esenciales, cumpliéndose especialmente los requisitos señalados en los artículos 6, 7 y 9 de la Ley 12/1994, de 17 de junio, de Fundaciones del País Vasco, y en los artículos 36 y siguientes del Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco, aprobado por el Decreto 101/2007, de 19 de junio.

No obstante, por lo que se refiere a los designados Patronos en cuyo nombre y representación interviene D.ª M.ª Esozia Leturiondo Aranzamendi, el poder verbal que la misma manifiesta haber recibido de aquéllos para este acto, resulta insuficiente, por lo que no resulta procedente la inscripción de esos nombramientos.

Vistas las normas mencionadas y demás normativa de general y pertinente aplicación,

La Consejera de Justicia y Administración Pública:

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Zaruzko (Gipuzkoa) «Mario Onaindia Fundazioa»ren eraketa, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea, gaur, F-258 zenbakiaz, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko hasierako kideak ebazpen honetan aipatutakoak dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak.

Bigarrena.– Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 3. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazten den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 5a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.

RESUELVE:

Primero.– Ordenar la inscripción en el Registro de Fundaciones del País Vasco, con esta fecha y bajo el número de registro F-258, de la constitución de la denominada «Mario Onaindia Fundazioa», de Zarautz (Gipuzkoa), así como de la composición inicial del Patronato integrado por los miembros que figuran en el cuerpo de la presente Resolución y que hubieren aceptado expresamente sus cargos.

Segundo.– Clasificar a dicha Fundación, en virtud de sus fines, en la Sección 3.ª del Registro de Fundaciones del País Vasco, conforme lo dispuesto en el artículo 2 del Decreto 101/2007, de 19 de junio, por el que se aprueba el Reglamento del Registro de Fundaciones del País Vasco.

Tercero.– Acordar la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la presente Orden, que agota la vía administrativa, cabrá interponer recurso potestativo de reposición ante esta Consejera de Justicia y Administración Pública, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación, o recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

En Vitoria-Gasteiz, a 5 de marzo de 2010.

La Consejera de Justicia y Administración Pública,
IDOIA MENDIA CUEVA.